

# Nafarroa Behereko hiru eskutitz

PEIO KAMINO KAMINONDO\*

PATXI SALABERRI ZARATIEGI\*\*

O raingo lan honetan Baxenabarreko euskarari idatzitako hiru gutun ematen ditugu argitaratu. Gutun hauen berri sarearen bitartez iritsi zitzaizkion Argentinatik Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko idazkaria den Mikel Gorrotxategiri, zer erran nahi zuten jakin nahi baitzuen naski hango norbaitek. Saltsa honetan pixka bat ibili garenez, guri igorri zizkigun Mikelen eskutitzak, itzul genitzan, eta guk horrela egin. Horregatik, irakurleak ikusiko duenez, lehenik bertsio originala sartzen dugu, gero grafia arautuan ezarritakoa eta, hondarrean, gaztelaniako itzulpena, erran gisan Argentinako bidaltzailearen nahia horixe baitzen.

Eskuratu genituen fotokopiak ez dira txarrak, baina biziki onak ere ez, eta irudi du zenbait lerroren bukaera eskas dela; diratekeen hutsarte horiek guhaurk bete ditugu eta taket artean eman. Eskutitzetan erabiltzen den euskaraz kestone, erran dezakegu Baxenabarrekoa dela, hain segur ere Larzabale alderdi horretakoa.

Irakurleak ikusteko aukera izanen duenez, lehen gutuna anaiari igortzen dio idazleak (Leon Erdozaintzik) Ameriketarik eta toka ibiltzen du. Bigarrena eta hirugarrena, berriz, aitari zuzentzen dizkio eta zuka alokutiboan daude, Ipar Euskal Herriko zenbait alderditan erabiltzen den begirunezko hizkera horretan (ikus Alberdi, 1996: 306-311).

Gutun edo letra hauetako lehena 1913an izkiriaturia da, Lehen Mundu Gerla hasi aitzinetik, bigarrena 1916koa da eta hirugarrena 1918koa, gatazka Europa xehakutzen ari zen garaikoak. Tartean tonuz kanpoko ateraldi zenbait ere bada, baina hemen kontatzen direnek laurogeita hamar urte badituzte eta ez dugu uste egun inor minduko den horregatik, letretan agertzen direnek aspaldian behar baitute hilik izan.

\* Luzaideko euskaltzalea.

\*\* Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Grafiari dagokionez, frantsesez ohikoak diren grafemak erabiltzen ditu usaian egileak, nahiz lehen gutunetik besteetara alde zerbait baden, segur aski urte batzuk igaro direlako. Lehen desberdintasuna [u]-ri doakio: 1913ko gutunean <u> idazten du egileak, baina bigarren eta hirugarrenean <u> ez ezik <ou> ere bada, frantsesez bezala. Bestalde, lehen eta bigarren gutunetan <k>-rik ez dago, beti <c> ibiltzen du Erdozaintzik, ondoko bokala zein baita ere, baina hirugarrenean <c>-ren aldamenen <k> ere ageri da.

Txistukariez den bezainbatean, [s] soinua ia beti <s> ematen du, hots, [ʃ] transkribatzeko ibiltzen duen grafema bera; salbuespen bakarra dago: hirugarren gutuneko *zouk* ‘zuk’. Afrikaria ([c]) irudikatzen du: *libertizen* ‘libertitzen’, *phasazen* ‘pasatzen’, *pazen* ‘pagatzen’, *igorzen* ‘igortzen’, *eranzian* ‘errantziakan’ (1. gutuna), *gorpizari* ‘gorputzari’, *baizouten* ‘baizutzen’, *ezindielacos* ‘etziendielakoz’, *ezitela* ‘etzitela’ (2. gut.), *zit* ‘tzit’, *phasatu* zu ‘phasatuko tzu’ (3. gut.).

Bestalde, [č] txetxekariari doakionez, zenbaitetan <ch> digramaz irudikatzen du Erdozaintzik: *esperancha* (1. gut.), *echaquin* (3. gut.), baina beste batzuetan <tch> ibiltzen du, Iparraldean ohikoa izan den gisan: *esperatchan*, *etch[eic]*, *etchen* (2. gut.). Honen aldaera igurzkaria ([š]) emateko <ch> baliatzen du egileak: *Geachine*, *ichciatuice* (1. gut.), *trichteci*, *Mayechen*, *Mayechec*, *Mayech*, *permichioneic* (2. gut.). Kasu batean (*charac*, *chara*, 1. gut.) ez dakigu grafiaren azpian zer soinu ezkututzen den, Garazi aldean konparazio-ne bi ebakerak baitira usaiakoak; hots, hemen *txarra(k)* nahiz *xarra(k)* egon litezke. Azkenik, [č] hortz-hobietako afrikaria <ts>-z irudikatzen du: *untsa*, *cotsia* (1. gut.), *ounsa*, *contserba* (2. gut.), *untsa* (3. gut.).

Zenbait aldiz hitz barneko *n* ez du ematen: *Yeicoari* ‘Jainkoari’, *gora[i]zi* (1. gut.), *esperatchan* ‘esperantxan’, *Yeicouac* ‘Jainkoak’, *goraiziac* (2. gut.), *mementouan*, *goraiziak* (3. gut.), baina *esperanchan* (1. gut.), *mementouan* (3. gut.). Ez dakigu *Jeiko* eta *goraitzi*-ren kasuan ez ote gauden hitz ezagunen aldaera lexikalen aurrean, baina ez dakigu segur. Garaziko 1893ko eskutitzean (Satrustegi, 1971: 298) egileak *isada* ‘izan da’, *uste du icusico duta* ‘uste dut ikusiko dudana’, *gorasi*, *guraizi*, *goraysi* ‘goraintzi’ eta *plata* ‘planta’ izkiriitzen ditu.

Soinu bustiez kestone, [ɲ] eta [tʲ] irudikatzen du: *Beyan* ‘Pettan’, *Mayech* ‘Mañex’, *puya* ‘putta’, ‘pittin’, *yici* ‘ttiki’ (2. gut.), *Peyan* ‘Pettan’ (3. gut.). Garazi aldeko 1893ko eskutitzean (Satrustegi, 1971: 298) *yuanayo* ‘Joanaño’ eta *Yominica* ‘Ddominika’ ageri dira.

Hasperenketaren gainean erran dezakegu espero genuen hitzetan ageri dela: *hire*, *handic*, *ihas*, *hamar*, *heben*, *hotan*, *gehio*, *horecin*, *hori*, *horec*, *huna*, *hobia*, *haingatic*, *ucaitenahaldic*, *horietas*, *har*, *hic*, *ahalduc*... (1. gut.), *harzen*, *haurrac*, *gehiena*, *bihi*, *hountan*, *harrasou*, *ahal*, *sohaun*, *horrat*, *ehoun*, *hamar*, *handi*, *bihozaren*... (2. gut.), *houna*, *hau*, *hebe[ngo]*, *subhaurren* (3. gut.), baina *aurrider* ‘haurrideei’; Salaberri Ibarrolakoak *aurhide* biltzen du.

Herskari hasperenduak ere badira: *phasaturic*, *phasazen*, *phasatu* (1. gut.), *phasazen*, *aurthen*, *phartes* (2. gut.), *phasatu* (3), baina *aspaldi*, *beti*, *pasen* ‘pagatzen’, *flacatu*, *icusi*, *ucaiten* (1. gut.), *ycousten*, *oucan*, *becan* (2. gut.), *ikousi*, *ikousten*... (3. gut.). Ez dakigu ongi soinu horiek hasperendurik ematen zituelako izkiriitzen dituen horrela edo eredu idatzi zenbaiti zerraio-

lako. *Phasatu* aditzaren kasuan irudi du azentua ez doala herskari hasperenduaren silaba berean, eta honek aspiraziorik ez zela ebakitzen pentsarazten digu. Etxepareren lanean, dena den, ohikoak dira herskari hasperenduak; Salaberri Ibarrolakoak *aspaldi*, *flakatu*, *pasatu* jasotzen ditu, baina *aurthen*, *bethi*, *ikhusi* eta *ukhan* ere bai.

Dardarkarietan bakuna <r>-z ematen du: *hire*, *phasaturic*, *denbora*, *beraz*, *Yeicoari*, *orai*, *arinuc*, *liera*, *nere*, *esperancha*, *ereinic*, *seur[ic]*, *menturas*, *euria*, *benturas*, *hori*, *eremanes*, *maneran*, *horiec*, *horietas*, *beras*, *gora[i]zi aitari*, *gisaberian*, *familliari*, *nisalaric* (1. gut.), *escoura*, *suri*, *denbora berian*, *sourenen*, *esperatchan*, *nere*, *soureganat*, *seouric*, *orai*, *samaris*, *souretaco*, *miracoulo*, *goure*, *miseria...* (2. gut.), *ni[k]jere*, *bera*, *nere*, *desirazen*, *berriogoric*, *denbora*, *aferetan*, *serios[ogo]*, *hori[ec]*, *suhauren*, *bouria*, *goraiziak*, *sure* (3. gut.).

Dardarkari anizkuna dela eta, lekune desberdinak bereizi behar dira:

a) Bokal artean. Lehen gutunean gehienetan <r> ibiltzen du eta hiru aldiz <rr>: *aras*, *lusaraicin*, *soren*, *charac*, *chara*, *beroita hamar*, *horecin*, *eranziancan*, *horec*, *iriteco*, *iritendiat*, *horengatic* / *Erresebitu*, *berriric*, *aurrider*. Bigarren eta hirugarren gutunetan, berriz, beti <rr> darabil: *berrien*, *arras*, *osarrian*, *haurrace*, *ascarrena*, *harrasou...*

b) Beste lekuneetan, hiru gutunetan, ia beti <r> izkiriartzen du egileak: *bihar*, *escer*, *urte*, *hamar*, *eder*, *ordian*, *erdi*, *idorte*, *frango*, *arcilatu*, *ser*, *aurrider* (1. gut.), *harzen*, *mendrena*, *cabaler*, *frango*, *trichteci*, *serbait*, *contserba*, *gerla*, *ascar...* (2. gut.), *letra*, *presenteco*, *frango*, *artio*, *hor*, *igorzi[a]*, *partes* (3. gut.). Salbuespen bakarra dago: *ascarr* (2. gut.).

Kasu batean, inplosioan, dardarkaria alboko baten ordainetan ageri da: *arcilatu* 'alokatu' (1. gut.). Badaiteke, zernahi dela, forma honek iturri Argentinako gaztelania herrikoian izatea.

Fonetika-fonologiari dagokionez ondoko ezaugarri hauek nabarmendu daitezke:

## 1. BOKALAK

### 1.1. Hersketa

o → u / — sudurk: *untsa*, *huna* (1. gut.), *ounsa*, *hountan*, *noun*, *huna*, *houn* (2. gut.), *houna*, *untsa* (3. gut.).

Zenbait aldiz irudi luke dardarkariak zerikusia izan duela hersketan: *sourte* (2. gut., ikus *FHV*, 475), hitz honetan zinez hersketa izan bada segurik; Salaberri Ibarrolakoak *zorth*e dakar. Etxeparekoak (1980 [1545]) *gogo honez* 'gogo onez', *honegatic* 'honengatik', *hon* 'ona' (4. or.), *hatse honetic* 'haste onetik' (6. or.), *hongui* (10, 26. or.), *ongui* (12. or.), *hona* (18. or.) darabiltza, baina *vn*sa (12, 14, 20. orr.), *hunequi* 'honekin', *hunec* 'honek' (24. or.), *hunat* 'hona(ntz)' (36. or.)...

### 1.2. Irekitzea

*Cotsia* (1. gut.), *miracoulo* 'mirakulua' (2. gut.). Salaberri Ibarrolakoak 1856an *mirakulu* jasotzen du, eta Luzaiden, egun, *miakulu* erraten da.

2. DIPTONGO ETA HIATOAK (*LEHEN ETA BIGARRENKARIAK*)

[aa] > [a]: *puchcat*, *Soren patzen* ‘zorren pagatzen’ (1. gut.), *diasou* (*diazu* < \**diaazu* < \**diadazu*) (2. gut.), *familian*, *osarri* (< \**osarri* < *osagarri*) (3. gut.).

[ae] > [ai] edo [aᵢ]: *Haingatic* ‘hala ere’ (1. gut.), *oucain* ‘ukanen’ (2. gut.). Cf., gainera, jabego genitiboa. Hemen sudurkariak lagundu du *e*-ren hersketan (ikus *FHV*, 66. or.).

[aᵢ] > [eᵢ]: *Yeicoari* (1. gut.), *Yeicouac* (2. gut.). Pauso hau, hitz honetan segurik, aski zaharra da, B. Etxeparekoak (1980 [1545]: 8) *geyncoa* ibiltzen baitu (*geyncoari*), baina *Iangoycoac* (erg.), *Iangoycua* (10. or.) ere bai; Salaberri Ibarrolakoak *Yinko*, *Yainko* dakartza.

[aᵢ] > [e]: *bena* ‘baina’ (1. gut., 2. gut.), *beno* ‘baino’ (3. gut.). Cf. Salaberri Ibarrolakoaren *bezik* eta Etxepareren *beci* ‘baizik’ (1980 [1545]: 46); Luzaiden egun *bézik* erraten da, baina *bána* ‘baina’ eta *báno* ‘baino’.

[aᵢ] > [i]: *geldizen nisalaic*, *gituc* (1. gut.), *besarcazen sitoualaic* (2. gut.), *geldizenisalaik* (3. gut.). Aldakuntza zaharra da hau: B. Etxeparekoak *Biciniçan artian* (1980 [1545]: 20), *Nic vaycitut offensatu* (40) darabiltza.

[aᵢ] > [a]: *besanbat* ‘bezainbat’. Aldakuntza hau, zernahi gisaz, hagitz zaharra da, B. Etxeparekoak eta Axularrek ibiltzen baitute. Luzaiden egun *bezánbat* erraten da.

[ao] > [o]: *gehio* (1. gut.), *hamost* ‘hamabost’, *baciosoun* (2. gut.; alderatu Etxepareren 1545eko *diagoc* (18), *diagocu* (26) eta Luzaideko egungo *djók*, *djóxu*, *djóxo*). Kasu batean aitzineko bokala ere aldatu da, beheiago ikus daitekeenez [ua] > [ia] edo [ja] azaltzen baita: *usio* (1. gut.), hots, \**usuiago* > \**usiao* > *usio* gertatu dateke.

[au] > [u]: *nuc* (1. gut.), *nousou* (2. gut.). Zaharra dela dudarik ez dago; cf. Eiheralarreko erretorearen *nola huyen guardatu* (32), *enuqueçu* ‘ez nauzu izanen’ (214).

[ea] > [ia] edo [ja]: *enia* ‘enea’, *igorzia* ‘igortzea’, *hobia* ‘hobea’, *gisaberian* ‘modu berean’ (1. gut.), *denbora berian*, *semia*, *lanian* (2. gut.), *maitia* (3. gut.). Etxeparek ardura erakusten du hersketa edo disimilazioa: *beryan*, *iabia*, *bercian*, *Arraxian*, *artian*, *sarçian*... baina *Curucea*.

[ee] > [e]: *oraye* ‘orain ere’, *Nic es ichciatuice* ‘nik ez izkiriaturik ere’, *aurrider* ‘haurrideei’ (1. gut.), *aurthene* ‘aurten ere’, *ouste disite* ‘uste dizit ere’, ‘uste dut ere’ (zuka) (2. gut.).

[ee] > [ei] edo [eᵢ]: *bedein* (2. gut.). Salaberri Ibarrolakoak *bederen* dakar eta Luzaiden *béden* erraten da.

[ei] edo [eᵢ] > [i]: *itecotan* ‘egitekotan’, *galdinen* ‘galdeginen’ (1. gut.).

[eᵢ] > [oᵢ]: *edozoin* ‘edozein’ (1. gut.). Etxeparek beti *zein* eta *ezein* ibiltzen ditu.

[eu] > [e]: *nere* (3. gut.).

[eo] > [jo]: *artio* (3. gut.).

[eu] edo [eu] hitz hastean ez da aldatzen: *euria* (1. gut.).

[ia] > [ja]: *guzia* (1. gut.; segur aski goranzko diptongoa eginez ebakitzen zatekeen).

[ii] > [i]: *handic* ‘handirik’, *iriteco* ‘irri egiteko’, *iritendiat* ‘irri egiten diat’ (1. gut.), *ene berric* ‘ene berririk’ (2. gut.).

[oa] > [wa]: *canpuan* (1. gut.), *onocouan*, *sanoua*, *Yeicouac*, *onocou[an]* (2. gut.), *mementouan*, *onokoua[n]* (3. gut.). Etxeparek *-oa* nahiz *-ua* zerabil-

tzan: *geyncoari* (8. or.), *Iangoycoac* (10. or.), *Iangoycoac* (12. or.), *ieyncoary* (14. or.) / *Iangoycua* (10. or.).

[oo] > [o]: *beroita hamar* ‘berrogeita hamar’ (1. gut.). Bestalde, *onocouan*, *onocou[an]* (2. gut.), *onokoua[n]* (3. gut.) ere baditugu eskutitzetan, eta Etxeparek *orano* darabilela (1980 [1545]: 6) aintzat harturik, pentsatu beharko dugu bilakaera hau izan dela: *oráno* > \**oróno* > *ohóno* > *oono* > *óno*. Egia da *orano* > \**oano* > *ono* gertatu dela ere kontu egin daitekeela, baina azentua asimilazioa izan duen bilakaeraren alde mintzo da. Salaberri Ibarrolakoak ere *orano* biltzen du.

[uja] > [ja]: *cotsia* ‘kutsua, pixka bat’ (1. gut.), *incetatia* ‘kezkatua’ (2. gut.), *bouria* ‘burua’ (3. gut.). Hemen badirudi jatorria *-uia* izan dela, Etxepareren lanean (*complituyari*, *parabiçuya*, *Munduyan*, *endelguyaz*, *saynduyan*, *duyan*, *beqhatuyac*, *orduya*, *varcamenduya*, *duyala*, *duyana*, *manamenduyac*, *yfernuya...*) eta toponimian (*Portaleburuya* [Iruñeko protokoloak, 32-IV, 1612], *Burguya* [Aurizko protokoloak, 2, 252, 1619], biak Donibane Garazikoak) ageri dena, eta oraino Beskoitzen bizirik dagoena (ikus Duhau, 2003). Ondarrolako 1841eko eskutitzean *bere buriaren* ageri da (Satrustegi, 1971: 2294), baina artikulu bereko 1893ko Garaziko letran *atacatuyac* dago (297. or.). Luzaiden egun bakarrik silaba bakarreko hitzetan (*blú* → *blúya*, *sú* → *súya*, *tú* → *túya...*) eta sakreetan gelditu da soinu hori (*deúrrija*, *kakázja* baina *deúrriya!*, *kakázya!*).

[uje], [ue] > [ie] edo [je]: *diela* (< *duiela*) ‘duela’, *sien* ‘zuen’ (izenondoa), *nien* ‘nuen’, *nielaic* ‘nuelarik’ (< *nuien*, *nuielarik*), *nindiela* (< \**ninduiela*) ‘ninduela’, *tien* (< *tuien* < \**dituien*) ‘dituen’ (1. gut.), *igorzen zie* ‘igortzen ditizie’, ‘igortzen dituzte’ zuka, *iten diasie* ‘egiten didate’, zuka (2. gut.), *dausiet desirazen* ‘desiratzen dizuet’ (3. gut.). Cf. Etxepareren *nahi duyen orduyan*; *qhencen eztuyenic* (1980 [1545]: 18, 28). Ondarrolako 1841eko eskutitzean (Satrustegi, 1971: 293-294) *eztiena*, *hartcen diela*, *oficiua dienac*, ageri dira, eta lan bereko 1893ko Luzaideko eskutitzean *pasatu zintuyen* ‘pasatu zenituen’ (ibid., 301), *pasátu zintín*, *pástu zintín* egun.

[uje] > [je] > [i] > [e] (?): *balio denic* (hiru gutunetan; Luzaiden *báljo djénik*, *báljo dínik*). Menturaz disimilazioa burutu dateke: *duienik* > *djenik* > *dinik* > *denik*.

[uu] > [u]: *ditulaic* ‘ditugularik’ (1. gut.), *dula* ‘dugula’ (3. gut.).

Lehen gutuneko *ardic* ‘ardiak’ hitzak ez dakigu zer oinarri duen, gero *berriac* (bi aldiz, bigarren gutunean) eta *goraiziac* (2. gut.), *goraiziak* (3. gut.) ageri baitira. Ez du irudi forma hori ebakeraren ondorio dela.

Bokal multzoak:

[awe] > [aũ] > [o]: *hotan* ‘hauetan’ (1. gut.), *hoce* ‘hauek ere’ (2. gut.).

[ioa] > [ia] edo [ja]: *niasu* ‘noa’ zuka (3. gut.).

### 3. KONTSONANTEAK

#### 3.1. Herskari ahostunak

Hitz hasieran aldizkatzea dago hitz batean: *menturas* / *benturas* (1. gut.). Salaberri Ibarrolakoak *mentura* eta *menturatu* jasotzen ditu; Luzaiden, orain, *mentúraz* edo *méntwaz* erraten da.

Herskari ahostunez den bezainbategian, Garazin-eta gertatzen denez, galdu egiten dira bokal artean, hitz barnean, *izena* + *bat* (Luzaiden bokal itxiekien ez: *árdi bát, bíuru bát*) eta *aditza* + *laguntzailea* segidetan (mugako herrian ez beti, halarik ere), duda-mudarik gabe testuinguru horretan igurzkari ebakitzen direlako; gero, ardura, ukipenean gelditu diren bokalak batzen dira: *pasen* ‘pagatzen’, *ditulaic* ‘ditugularik’, *liera* ‘libera’, *lusaraicin* ‘lursagarrarekin’ (Salaberri Ibarrolakoak *lursagar*), *beroita hamar* ‘berrogeita hamar’, *diau* ‘diagu’, *gehio* ‘gehiago’, *puchcat* ‘puxka bat’, *eranziaican* ‘errantziakan’ (< \**erran zieraudakan*, \**erran zieraudakan*), *ezauz[en]* ‘ezagutzen’, *galdinen nacola* ‘galdeginen, eskatuko niola’, *seuric* ‘segurik’, *egon dain* ‘egon dadin’, *usio* ‘usuago’ (1. gut.), *osarrian* ‘osagarrian’, *seouric* ‘segurik’, *gehienaisit* ‘haur zaharrena dizut’ (< *dizit* < *dizut*), *basio-soun* ‘baziagozun’, ‘zegoen zuka’ (cf. Etxepareren *diagoçu*), *ideyaisit* ‘ideia dizut’, *baisit* ‘badizut’, *hamost* ‘hamabost’, *oucain douan* ‘ukanen dudun’, *besarcazen sitoualaic* ‘besarikatzen zaitudalarik’ (2. gut.), *osarri*, *dula* ‘dugula’ (3. gut.).

Igurzkariak ez dira beti galtzen, halarik ere: *libertizen* ‘dibertitzen’, *egun* ‘egun’ (1. gut.), *berriogoric* (3. gut.). Hitz barrenean *-b-* zaharra dugu *heben* ‘hemen’ hitzean (1. gut.).

### 3.2. Dardarkariak

Dardarkari bakunaz kestione, zenbait aldiz erortzen da, bokal artean: *ditulaic* (< *ditugularik*), *aurtene* (< *aurtenera*), *ono* (< *orano*), *oraye* (< *oraiere*), *haingatic* (< *harengatik*), *onocuan* (< *oranokoan*), *ichciatuice* (< *izkiriaturikere*) (1. gut.), *familiacin* (< *familiarekin*), *hoce* (< *hokere*), *soitea* (< *so egitera*), *siela* (< *zirela*), *haurretaic* (< *haurretarik*), *permichioneic* (< *permixionerik*), *salbatouic* (< *salbaturik*), *bedein* (< *bederen*), *Ameicetan* (< *Ameriketetan*), *bisizea* (< *bizitzera*), *icoustea* (< *ikustera*), *besarcazen sitoualaic* (< *besarikatzen zaitudalarik*) (2. gut.), *diela* (< *direla*), *geldizenisalaic* (< *gelditzen nizalarik*), *onokouan* (< *oranokoan*), *dielaic* (< *dielarik*) (3. gut.).

Baina ez beti, jakina: *phasaturic*, *Yeicoari*, *alabac ere ba*, *orai*, *esperancha*, *menturas*, *menturas*, *familiari*, *nisalaric* (1. gut.), *esperatchan*, *mentoura[s]* ‘menturaz’, *miracoulo* ‘mirakulua’, *goure* ‘gure’, *nere* ‘neure’, *soureganat* ‘zureganat’, *orai*, *samaris* ‘zamariz’, *gorpizari* ‘gorputzari’, *hori*, *ari...* (2. letra), *Ni[k]ere*, *berriogoric*, *nere*, *beras*, *serios[ogo]*, *berriric* (3. gut.). Inoiz aldizkatzea kausitzen dugu: *hoiec* (abs.) / *horiec* (erg.) (2. gut.). Ondarrolako 1841eko eskutitzean (Satrustegi, 1971: 293-294) normalena ez erortzea da, salbuespen zenbait izanagatik ere.

### 3.3. Sudurkaria

Artetan sudurkaria ere erortzen da: *bezay* ‘bezain’ (1. eta 2. gut.), *esperatchan* (‘itxaropenean’; cf. zernahi dela, lehen gutuneko *esperancha*), *yalgizedousou* ‘jalgitzen da’ (zuka), *igorzezie* ‘igortzen dituzte’ (zuka, baina *igorzen zie* aitzineko letroran). Bestalde, *ycousten disit*, *igorzen diasie* ‘igortze didate’ zuka, *phasatzen disit*, *Geldizen nousu* (2. gut.), *salbazen dielaic* ‘salbatzen direlarik’ (3. gut.) ditugu. Ikus grafiaz mintzatzearan gai honetaz erran duguna. Kasu batean bi sudurkariren bat egitea dago: *geldizenisalaic* ‘gelditzen naizelarik’ (3. gut.).

### 3.4. Bustikuntza

Adierazkorra da kausitzen dugun bakarra (*Mayechen* ‘Mañexen’, *Beyan* ‘Bettan’, *Mayechec* ‘Mañexek’, *puya* ‘putta, pittin’, *yici* ‘tiki’, 2. gut.); bestela

aldaera palatalizatugabea agertzen da: *mila* (1. gut.). Grafiaz kestione, cf. 1893ko eskutitzeko *yuanayo* ‘Juanaño’, *Preyo* ‘Preddo’ (< *Preddo* < *Pedro*) (Satrustegi, 1971: 298).

Bestalde, *esperancha* ‘esperantxa, espero’ hitza horrela erabiltzen da Baxanabarreko zenbait hizkeratan. Berezia da *permichioneic* ‘permisionerik’ (2. gut.); soinu sabaikaria, menturaz, aitzinean eta gibelean duen bokal palatalari zor zaioke.

### 3.5. Sandhiak

*-n + z-* > *-ntz-*: *eranzikan* ‘erran zidan’ (1. gut.), *isanzela* ‘izan zela’ (2. gut.), baina *besarcazen sitoulaic* (2. gut.).

*-n + z-* > *-tz-*: *igorzezie* “igortzetzie” (2. gut.), baina *igorzen zie* “igortzen tzie” aitzineko lerroan (2. gut.).

*-t + z-* > *-tz-*: *baizouten* ‘baitzuten’, irudi duenez (2. gut.).

*-z + d-* > *-zt-*: *estie* ‘ez ditek’, *estuc* ‘ez duk’ (1. gut.), *eziela* ‘ez duela’, *estiacisout* ‘ez diakizut’, ‘ez dakit’ zuka (2. gut.).

*-z + n-* > *-n-*: *eninduela* ‘ez ninduela’, *enuc* ‘ez nauk’ (1. gut.).

*-z + z-* > *-tz-*: *ezacala har* “etzakala har”, ‘ez ezak har’ (1. gut.), *ezitela inceta* “etzitela inketa”, ‘ez zaitezela kezka’, *ezit* ‘ez zait’ (2. gut.).

## 4. GERTAKARI BAT BAINO GEHIAGO

Aditz laguntzaileetan eta bestelakoetan kontsonante galtzea eta bokal batzea ohikoak dira: *flacatusisciac* (< \**flakatu ziaizkidak*), *eranziacan* (< \**erran zieraudakan*, *zieraudakan*). Cf. Etxepareren *emanen darayela* ‘emanen diela’, 50. or. beltza gurea da) (1. gut.), *ygorzen siasoun* (< \**igortzen zieraudazun*, *zieraudazun* ‘hark hura niri’), *igorzen diasiasie* (< \**igortzen dieraizkidazue*, *dieraizkidazue* ‘haiek haiek niri’), *igorzen zie* (< \**igortzen ditizie* < \**igortzen ditizue* ‘haiek haiek’), *igorzen diasie* (< \**igortzen dieraudazue*, *dieraudazue* ‘haiek hura niri’), *eman diasou* (< \**eman dieraudazu*, *dieraudazu* ‘hark hura niri’) (2. gut.), *dausiet* (*desinatzen*) (\**darauziet* dateke jatorria; cf. B. Etxeparekoaren *igorten darauritzut*, 6. or. eta Ondarrolako 1841eko *ygorcen darozuet*, Satrustegi, 1971: 293) (3. gut.).

## 5. ASIMILAZIOA

Zenbait aldiz kausitzen dugu: *ereman* ‘eraman’, *basiciat* ‘bazekiat’ (baina *estiacisout*, “eztiakizut”, ‘ez dakit’ zuka), *edozoin* ‘edozein’ (1. gut.). Aditzean ohikoa da: *erresebitou zit* “errezibitu tzit” (< *errezebitu tizit* < \**errezebitu diti-zit* < \**errezebitu ditizut*), *icousicoisiou* (< \**ikusiko dizigu* < \**ikusiko dizugu*), *ideyaisit*, *baisit* (2. gut.), *Erresebitou nisin*, *disit gosazen* (3. gut.).

## 6. DISIMILAZIOA

Disimilazio kasu zenbait ere bada, aditzean partikulazki: *aneya* (1. gut., baina *anaya*, hiruretan), *harrasou* ‘har ezazu’, *becan* ‘bakan’ (2. gut.), *saintasu* ‘zaindu ezazu’ (3. gut.). Luzaiden, konparazione, usaiakoak dira *hárrazù* eta *hártzazù*, *emázu* eta *emántzazù*, *errázu* eta *errántzazù*, *ízu* eta *íntzazù*... Higurarren gutuneko lekukotasunean, beraz, *zaindu* aditzaren *zaint* erro horz-

kariduna dagoke, Ipar Euskal Herriko hizkera batzuetan normala den *-t*-dun aldaera, alegia, eta zalantzarik gabe *zazu*-tik atera den *azu* forma disimilatu edo laburtua.

## 7. AFERESIA

*Erresebitou zit, igorzen zie* (2. gut.). Nolanahi ere aferesia arrunt zaharra dateke, ez menturaz kasu guztietan; cf. Etxepareren *hiçac oro afer tuçu* (1980 [1545]: 44).

## 8. SINKOPA

Aski nabarmena da aditzean: *erresebitou zit, igorzen zie, ezit, emanenzou* “emanentzu” (< *emanen tuzu* < *emanen dituzu*) (2. gut.), *phasa[tu]co zu* “p[h]asatukotzu”, *untsa zit* “untsa tzit” (< \**untsa tizit* < \**untsa ditizit* < \**untsa ditizut*), *ezit* (3. gut.).

## MORFOLOGIA

### A) DEKLINABIDEA

#### 1. Absolutiboa

Singularra

*-a* (artikulua): *aneya, denbora, famillia, esperancha* (1. gut.), *gerla, ideya* (2. gut.), *osarri houna, Aita maitia, denbora houna, anaya...* (3. gut.).

Plurala

Normala *-ak* da: *seme alabac, charac* ‘txarrak’, *inac* (1. gut.), *berriac* (2. gut.), *gausac, denac* (3. gut.), baina behin, *-k* aurkitzen dugu: *ardic* ‘ardiak’ (1. gut.), hain segur ere egilea, izkiriatzean, nahasi delako.

Mugagabea

Garazi aldeko gutunetan usaiakoa den bezala, hemen ere, agurretan, absolutibo plurala erabiltzen da *milaka* zenbatzailearekin, mugagabearen partez: *Milaca goraiziac* ‘milaka goraintzi’ (2. gut.), *Milak[a] goraiziak* (3. gut.). Ez beti, halarik ere: *Milaca gora[i]zi* (1. gut.). Ondarrolako 1841eko eskutitzean (Satrustegi, 1971: 293) *mila gorainci* eta *milaca gorainci* agertzen dira. Bestelakoa: *frango plaser* (2. gut.).

Izenordainak eta beste: *hoiec* ‘horiek’, *hori* (2. gut.).

#### 2. Partitiboa

*-ik* (kontsonante ondoan): *ereinic, ucanice* ‘ukanik ere, izanik ere’, *denic* ‘duenik’ (1. gut.), *seouric* ‘segurik’, *denic* ‘duenik’ (2. gut.), *denic* ‘duenik’ (3. gut.).

*-rik* (bokal ondoan): *phasaturic* (1. gut.), *beste berriric* (2. gut.), *berriogoric, berriric* (3. gut.). Bokal arteko dardarkaria eror daiteke eta ukipenean gelditutako bokalak berdinak badira batu daitezke: *ichciatuice* (1. gut.), *permichioneic, salbatuic* ‘salbaturik’, *ene berric* (2. gut.).

#### 3. Ergatiboa

Singularra

*-ak*: *Yeicouac* ‘Jainkoak’ (2. gut.).



## Plurala

-*ek*: *biec* (2. gut.).

## Mugagabea

-*k* (bokal ondoan): *edozoin astoc*, *bestec* (1. gut.), *Yanpierrac* (2. gut.).

-*ek* (kontsonante ondoan): *Mayechec* 'Mañexek' (2. gut.).

Izenordainak: *horec* 'horrek', *nic*, *hic*, *horiec* (1. gut.), *hoce* 'hauek ere', *horiec*, *nic* (2. gut.), *zouk* 'zuk' (3. gut.).

## 4. Datiboa

## Singularra

-*ari*: *Yeicoari*, *aitari*, *familiari* (1. gut.), *gorpizari* (2. gut.). Ondarrolako 1841eko eskutitzean ere (Satrustegi, 1971: 293) -*ari* dugu *errebari* 'arrebari' sintagman, baina dardarkaririk gabeko aldaera *anayai*-n (ibid., 294).

## Plurala

-*er*: *aurrider* (1. gut.), *cabaler*, *gusier* (2. gut.).

Izenordainak: *eni*, *suri* (1. gut.), *suri* (2. gut.).

## 5. Genitiboa:

## Singularra

-*an* (bokal ondoan): *familiari* 'familiaren' (3. gut.).

-*aren* (kontsonante ondoan): *bihozaren* (2. gut.).

Ondarrolako 1841eko eskutitzean -*aren* (*bere buriaren*, *guerlaren*) eta -*ain* (*anayain*) ditugu (Satrustegi, 1971: 294).

## Plurala

-*en*: *soren* 'zorren' (1. gut.), *berrien*, *sourenen* 'zureen' edo 'zuhaueren', *gousien* 'guzien' (2. gut.).

## Mugagabea

-*in* (bokal ondoan): *Yanpierrain*, *erregein* 'erregeren' (2. gut.).

-*en* (kontsonante ondoan): *Mayechen* 'Mañexen', *Peyanen* 'Petaneren' (3. gut.).

Izenordainak: *sien*, *hire* (1. gut.), *ene*, *souren(en)*, *nere* 'neure' (cf. Etxepareren *neure*, 6. or.), *sohaun* 'zuhauen, zerorren', *goure* 'gure', *soure* 'zure', *sien* 'zuen' (2. gut.), *nere* 'neure', *suhauren* 'zuhauen', *sure* (3. gut.).

## 6. Soziatiboa

## Singularra

-*aikin*: *lusaraicin* (1. gut.).

-*akin*: *familiacin* (2. gut.), *familiakin*, *bisiakin* (3. gut.).

## Mugagabea

-*ekin* (kontsonante ondoan): *Elgarecin* (1. gut.), *pl[a]s[e]rrekin* 'atseginez' (2. gut.).

-*ikin* (bokal ondoan): *Luraicin* (1. gut.).

Izenordainak: *horecin* 'horrekin' (1. gut.), *enecin*, *enecilan* (2. gut.).

## 7. Destinatiboa

## 7.1. Genitiboaren gainean eraikia

## Mugagabea

-*endako* (kontsonante ondoan): *sei egounendaco* 'sei egunetarako', *hamost egounendaco* 'hamabost egunetarako' (2. gut.).

Izenordainak: *souretaco* 'zuretzat' (2. gut.).

## 7.2. Inesiboaren gainean eraikia:

Singularra

*-ko*: *presenteco* ‘presenterako, oraingo’ (3. gut.).Adizlaguna (*-koz*): *beticos* ‘betiko’ (2. gut.).

## 8. Instrumentala

Plurala

*-ez*: *egoun gousies* (2. gut.), *berries* (3. gut.).

Mugagabea

*-z* (bokal ondoan): *menturas, benturas, partes* (1. gut.), *samaris, ene phar-tes* (2. gut.), *ene eta famillian partes* (3. gut.).*-ez* (kontsonante ondoan): *eremanes* (1. gut.).Izenordainak: *horietas, hortas* (1. gut.), *nitas, beras* ‘beraz, hortaz’ (2. gut.).

## 9. Motibatiboa

Izenordainak: *haingatic* ‘hala ere’ (‘harengatik’, berez), *horengatic* ‘horre-  
gatik’ (1. gut.).

## 10. Inesiboa

Singularra

*-an* (bokal ondoan): *canpuan, maneran, sacolan* ‘sakelan’ (1. gut.), *espe-  
ratchan* ‘itxaropenean’, *osarrian* ‘osasunean’, *onocouan* ‘orainokoan’ (2. gut.),  
*erres[ebi]zian, meme[n]touan* ‘momentuan, oraingoz’ (3. gut.).*-ian* (kontsonante ondoan): *gisaberian* (1. gut.), *denbora berian, lanian* (2.  
gut.).

Plurala

*-etan*: *Ameicetan*<sup>1</sup> (2. gut.), *aferetan* (3. gut.).

Mugagabea

*-n*: *etchen* (2. gut.).*-tan*: *itecotan* (< *egiteko asmotan* edo; 1. gut.).Izenordain, aditzondo eta beste: *heben* (1. gut.), *moundou hountan, egoun  
hotan, aldi hountan, secoulan* (2. gut.), *hor, secoulan* (3. gut.).

## 11. Adlatiboa

a) Bizigabeekikoa

Singularra

*-a* (*e* ondoan), *-ra* (*u* ondoan): *ycustea* ‘ikustera’ (1. gut.), *escoura, soitea* ‘so  
egitera, begiratzera’, *bisizea, icoustea* (2. gut.).Adizlaguna: *horrat* (2. gut.).Ondarrolako 1841eko eskutitzean *lanera* dago (Satrustegi, 1971: 293),  
baina *horrat* eta *hunat*.

b) Bizidunekikoa

Adizlaguna: *soureganat* ‘zuregana’ (2. gut.).

## 12. Ablatiboa

Singularra

*-tik* (bokal ondoan): *erditic* (2. gut.).<sup>1</sup> Oinarritako *Ameriketa* hartzen bada mugagabetzat eman beharko dugu sintagma hau.

Plurala

-*etaik* (kontsonante ondoan): *haurretaic* (2. gut.).

## B) ADITZA

Adizkiak banan-banan ikustera igaro aitzinetik, nabarmendu behar da Ipar Euskal Herriko hizkeretan usaiakoa den bezala, pare bat aldiz *AN* + *AL* hurrenkera aldatzen dela, eta *AL* + *AN* bilakatzen, irudi duenez aitzineko sintagma galdegaitzeko: *ni[k]ere gausa bera disit gosazen, gausa bera dausiet desirazen* (3. gut.).

Adizkiez kestione, bada bimorfismo kasu bat: (*erresebitu*) *nian* / (*pha[sa]tu*) *nien* (1. gut.). Gero, hori bai, badira konbinaketako aldaera bat baino gehiago, zenbait adizkitan (honetaz ikus Kamino & Salaberri, 2001).

Bestalde, zehar osagarria agerian bada, aditz laguntzaileak ez du datiboaren marka eraman behar, beste hizkera batzuetan bezala: *Milaca goraiziac eta emanenzou haur gusier ene phartes* (2. gut.), alegia, ‘Milaka goraintzi eta emanen dituzu haur guztiei ene partez’.

### 1. Aditz irangankorrak

\**edun, ukan*

Orainaldia

Toka: *diat, dic, diau* ‘diagu’, *die (estie)* ‘ditek’.

Zuka: *disit* ‘dut’ (*isit* bokal ondoan: *gehienaisit, ideyaisit, baisit*) — *zit* ‘ditut’ (\**ditizut* > \**ditizit* > *tizit* > *tzi*), *disiou* (*icousicoisiu*; bokal ondoan *d-* galtzen da; ‘dugu’ zuka), *disi* ‘du’, *disie* ‘dute’ — *zie* (*igorzen zie, igorzezie, igortzen dituzte*) / *dausiet* ‘dizuet’, *diasou* ‘dit’, *diasie* ‘didate’, *diasciasie* ‘dizkidate’.

Eztabadako erregistroa (mendeko perpausetan normalean): *dut* (*oucain douan* ‘ukain duan’, ‘ukanen dudan’; Garazi aldean *ukain duan* nahiz *ukain dutan* erraten da, ikus Kamino & Salaberri, 2001: 194. Cf. *besarcazen sitoualaic* ‘besarkatzen zaitudalarik’; *ikousi baitout*), *du* (*diela* ‘duela’, *badu* ‘badu’...) — *tu* (*tien*) ‘ditu’, *du* (*dula* ‘dugula’) — *ditu* (*ditulaic* ‘ditugularik’), *sitout* (*besarcazen sitoualaic*).

Iraganaldia

Toka: *nian, nien* ‘nian’, *hayan* ‘hidan’ (?), (*eran*)*ziacan* ‘zidaan’ / *sican* ‘zian’, *nindien* (*enindiela*).

Zuka: *nisin* ‘nuen’ / *siasoun* ‘zidan’.

Eztabadako erregistroa (mendeko perpausetan): *zindien* (*ezindielacos* ‘ez zenuelako’), *sindouten* (*sindoutela* ‘zenutela’), *zuten* (*baizouten* ‘baitzuten’) / *nacon* (*nacola*) ‘nion’.

Agintera:

Toka: *zac* (*ezacala* ‘etzakala’, ‘ez ezak’).

Zuka: (*z*)*asu* (*saintasu* ‘zaintazu’, ‘zain ezazu’).

*jakin*

Orainaldia

Toka: *siciat* ‘zekiat’.

Zuka: *diacisout* (*estiacisout* ‘ez dakit’).

### 2. Aditz irangangaitzak

*izan*

Orainaldia

Toka: *nuc* ‘nauk’, *duc*, *gituc* ‘gaituk’ / *sisciac* ‘zaizkidak’.

Zuka: *nousou* ‘naiz’, *dousou* ‘da’, *zu* ‘dira’.

Eztabadako erregistroa (mendeko perpausetan): *niz* (*nisalaric*), *sira* (*sie-la*)<sup>2</sup>, *da* (*dela*), *dira* (*diela*, *dielaic*).

Iraganaldia

Eztabadako erregistroa (mendeko perpausetan): *zen* (*isanzela* ‘izan zela’), *sinen* (*sinela*).

Agintera: *zite* (*ezitela inceta* ‘ez zaitezela kezka’).

Subjuntiboa: *dain* ‘dadin’ (*egondain*).

*egon*

Iraganaldia

Zuka: *siosoun* ‘zegoen’.

*joan*

Orainaldia

Zuka: *niasu* ‘noa’.

## JOSKERA

Arlo honetan ez dago gauza gehiegi nabarmentzeko, testuak aski laburrak baitira batetik, eta egileak hizkera sobera landua erabiltzen ez duelako bestetik. Azken batean, irudi duenez, mintzatzen zen bezalatsu izkiriartzen zuen Erdozaintzik.

Denborazko perpausak *-ela(r)ik*-en bitartez egiten ditu, batuan *-enean* edo *-elarik* ibiliko genituzkeen testuinguruetan: *urte charac ditulaic* ‘urte txarrrak ditugularik’, *Icusinielaic* ‘ikusi nuenean’, *geldizen nisalarik* ‘gelditzen naitzelarik’ (1. gut.), *besarcazen sitoualaic* ‘besarkatzen zaitudalarik’ (2. gut.). Behin baldintza kutsua du itzuliak: *eta ono anaya hori[ec] bisiakin salbazen dielaic* ‘eta ene anaia horiek bizia salbatzen badute behintzat, onik ateratzen badira behintzat’ (3. gut.). Bestelako bat ere bada: *gauza bera dausiet desirazen presenteco, hau erres[ebi]zian eta beti* ‘gauza bera desiratzen dizuet orain(go), hau jasotzean eta beti’ (3. gut.).

Perpaus osagarrietan *-ela* kausitzen dugu gehienetan: *eranziaacan enindie-la ezauz[en]* ‘erran zidaan ez ninduela ezagutzen’ (1. gut.), *ycousten disit frango trichteci batou siela* ‘ikusten dut (zuka) franko tristeki batu zuela’, *noun ygorzen baizouten arras ountsa siela* ‘non bidaltzen baitzuten arras ongi zarelá’, *Yanpierrac ygorzen siasoun etchen isanzela sei egounendaco* ‘Janpierrak bidaltzen zidan (zuka) etxen izan zela sei egunetarako’, *Mayechec estiela oucan permichioneic* ‘Mañexek ez duela izan permisiorik, baimenik’, *anaya horieic ygorzen diasie sou pou[ch]ca bat incetatia sinela* ‘anaia horiek bidaltzen didate (zuka) zu pixka bat kezkatu zeundela’ (2. gut.), *ikousi baitout osarri houna sindoutela* ‘ikusi baitut osasun ona zenutela’, *Aita maitia, hebe[ngo] berries kestione esta berriogoric. Arras denbora houna dula mementouan* ‘Aita maitea, hemengo berriak direla-eta ez dago berriogoric. Arras eguraldi ona dugula momentuan’, *hor ikous[te]n disit sekoulan beno serius[ogo] diela gausak* ‘hor ikusten dut (zuka) sekulan baino serioago daudela gauzak’ (3. gut.).

<sup>2</sup> Garazi aldean dardarkaria bakarrik adizkiak menderagailua daramalarik erortzen da, ez, ordea, forma osoan.

*Uste izan* aditzarekin bai *-ela* eta bai *-en* kausitzen ditugu: *ustesican serbait galdinen nacola* ‘uste zuen zerbait eskatuko niola’ (1. gut.), *eta aurthene ouste disite ourte houn bat oucain douan* ‘eta aurten ere uste dut ere (xuka) urte on bat izanen dudan’ (2. gut.).

Behin subjuntiboko adizkia azaltzen da, aditz nagusi agerikorik gabe; azpian, ordea, *errakok* ‘erraniezaiok’, *errak* ‘erran ezak’ dagoela pentsatu behar da: *Milaca gora[i]zi aitari eta egondain ascar* (1. gut.). Mugaz honateko aldean *egon dadila* erranen genuke, baina Nafarroa Beherean ez dira gutxi hone-lakoak, gramatikarien erranak gorabehera (ikus Goenaga, 1997); cf. Luzaideko gutun argitaragabeetako adibide hauek: *Ene partez errekoxu uros izan diten; Mari Sarrik, juan zelaik Iruñeat, manatu zixin Ana Marimaite otoi erran zezakon Martinoinekuai baietz*. Arnegiko gutunetan ere bada horrelako zenbait: *Huntan uzten zitut, besarkatuz biotzaren erditik eta goraintziak jaun erretorari ene partez, ez dadien sobera akit konprenditzen zer erran nai duan ixkio-ne trixte huntan*. Herri bereko 1841eko eskutitzean ere ageri da (Satrustegi, 1971: 294): «Ene adisquide maitiac guizon / familiacuac guehiago ytzuli nahibadu horrat eztadin yin».

Zehargaldera pare bat ere badago: *Igorzen hayan aber ser pha[sa]tu nien Geachine Luraicin* ‘Bidaltzen hidan (?) aber zer pasatu nuen Geaxine Lurarenkin’ (1. gut.), *Nic estiacisout miseria cer den* ‘nik ez dakit (zuka) miseria zer den’ (2. gut.).

Baldintzazko perpausetan *balinba* eta *ba* ibiltzen ditu egileak: *balio balinbadu* ‘balio baldin badu’, *nic balinbadut* ‘nik baldin badut’ (1. gut.), *secoulan gerla hori finitzen bada* ‘gerla hori inoiz bukatzen bada’ (2. gut.). Kontzesiboetan aditz partizipio, partitibo eta *ere*-ren bidezko itzuliak kausitzen ditugu: *es ucanice horec besanbat sos* ‘horrek adina diru ez izanik ere’, *Nic ez ichiatuice usu* ‘nik maiz ez idatzirik ere’ (1. gut.). Bigarren gutunean kutsu kontzesiboa duen *sernahi isanic* dago: *sernahi isanic, yinen nousou sien icoustea* ‘zernahi ere den, joanen naiz (zuka) zuek ikustera’.

Erlatiboari doakionez, izenburua aitzinaturik duten perpaus luzeak dira bat salbu beste gainerateko guztiak, bakar zenbait itzuri ez bazaigu segurik; agurtzerakoan erabiltzen ditu: *heben estuc beste berriric igorzia balio denic* ‘hemen ez dago beste berririk bidaltzea merezi duenik’ (1. gut.), *ezit beste berriric ygorzia balio denic* ‘ez dut (zuka) beste berririk bidaltzea merezi duenik’ (2. gut.). Behin *non*-erlatiboa darabil: *Egoun hotan erresebitou zit anaya Mayechen eta Yanpierrain letrac, noun ygorzen baizouten arras ountsa siela* (2. gut.). Cf. Luzaideko 1898ko hau (Satrustegi, 1971: 301): «Adisquide Batista: badaquizu cer solas pasatu dugun ene bortan zure lau aberez questione zointan aisa utçi bainuzu erranez zure denbora gucian ez duzula mando ez zaldiequin traturic ibili».

Berdintasunezko konparazioan (Euskaltzaindia, 1999: 316) maila adierazteko *besay* ibiltzen du: *horec besay bisi huna eremanes edo hobia* ‘horrek bezain bizi ona eramanez edo hobea’ (1. gut.), *ahal besay ountsa* ‘ahal bezain untsa’, *secoulan besay ascar dousou* ‘inoiz baino azkarrago dago (zuka)’ (2. gut.). Zenbatasuna aditzera emateko, berriz, *besanbat* darabil: *es ucanice horec besanbat sos* ‘ez izanik ere horrek adina diru’ (1. gut.). Desberdintasuneko konparazioan *hic iten ahalduc usio* ‘hik egiten ahal duk usuago, maizago’ (1. gut.), *Aita maitia, hebe[ngo] berries kestione esta berriogoric* ‘Aita maitea, hemengo berriak direla-eta ez dago berriagorik’ eta *hor ikous[te]n disit sekoulan*

*beno serios[ogo] diela gausak* ‘hor ikusten dut (zuka) sekulan baino serioago daudela gauzak’ (3. gut.) ditugu. Superlatiboan *gehienaisit mendrena* ‘zaharrena dut (zuka) ahulena’ dago (2. gut.).

Kausazko perpausai dagokienez, *-elacos* eta *bait-* darabiltza Erdozaintzik: *sou pou[ch]ca bat incetatia sinela, ezindielacos ene berric* ‘zu pixka bat kezkatu-rik zeundela, ez zenuelako ene berririk’ (2. gut.), *Erresebitou nisin anaya Pe-yanen letra pla[a]s[e]rrekin, ikousi baitout osarri houna sindoutela* ‘jaso nuen (zuka) anaia Pettanen gutuna atseginez, ikusi baitut osasun ona zenutela’ (3. gut.).

Gutunetako xedezko perpaus bakarra *-teko-*ren bidezkoa da: *Harzen disit louma escoura ene berrien suri emateco* ‘hartzen dut (zuka) luma eskura ene berriak zuri emateko’ (2. gut.). Azkenik, moduzko bat ere badago, azpian ohiko erlatiboa duena: *horec tien maneran edozoin astoc ucaitenahaldic* ‘horrek dituen moduan edozein astok izaten ahal dik’ (1. gut.).

## HIZTEGIA

Hitz bakoitzean zer gutunetan ageri den azaltzen dugu; hiruretan ageri bada ez dugu zenbakirik sartzen. Gehien-gehienetan oinarritzko forma ematen dugu, baina zalantza dugunean testuko hitza bera ezartzen dugu, grafia aldaturik, hori bai. Hona hemen beraz:

afera (3. gut.)

agian ‘utinam’ (2. gut.): *agian fite icousicoisiou hoiec salbatouic* ‘horiek salbaturik ikusiko ahal d(it)ugu’ (zuka)

aita

ahal izan (1., 2. gut.)

aldi (2. gut.)

Ameiketan ‘Ameriketari’ (2. gut.). Ez dakigu oinarrian *Ameika* ala *Ameiketa* dagoen.

anaia; aneia (1. gut.)

ardi (1. gut.)

ari izan (2. gut.)

arkilatu ‘alokatu’ (1. gut.)

arras ‘hagitz’

artio ‘arte’ (3. gut.)

aspaldi (1. gut.)

asto (1. gut.)

aurride ‘senidea’ (1. gut.)

aurten (1. gut.), aurthen (2. gut.)

azkar ‘bizkor, indartsu’ (1., 2. gut.)

balio izan ‘balio izan’ (1. gut.), ‘merezi izan’ (2., 3. gut.)

bat (2. gut.)

batu ‘bildu’ (2. gut.)

bedein ‘bederen’ (2. gut.)

behi (2. gut.)

bekan ‘bakan, gutxitan’ (2. gut.)

beno ‘baina’ (1. gut.)

beno ‘baino’ (3. gut.)

benturaz (1. gut.), menturaz ‘beharbada’ (1., 2. gut.)

bera  
 beraz  
 berri 'albistea'  
 berroi 'berrogei' (1., 2. gut.)  
 besarkatu (2. gut.)  
 beste (1., 2. gut.)  
 beti 'beti'; 'oraindik' (frantseseko *encore* edo) (2. gut.)  
 Bettan, Pettan (*Bertrand* izenaren hipokoristikoa) (2. gut.)  
 bezai 'bezain' (1., 2. gut.)  
 bezala (1. gut.)  
 bezanbat 'adina' (1. gut.)  
 biek (erg.pl.) (2. gut.)  
 bihi 'alea' (2. gut.)  
 bihar (1. gut.)  
 bihotza (2. gut.)  
 bizi (aditza, 1., 2. gut.), (izena)  
 biziki 'oso' (1. gut.)  
 bost (1. gut.)  
 buru (3. gut.)  
 dena (3. gut.)  
 denbora  
 desiratu (3. gut.)  
 e, ere (3. gut.)  
 edozoin (1. gut.)  
 egon (1. gut.)  
 egun 'gaur' (1. gut.), 'eguna' (1., 2. gut.)  
 ehun (2. gut.)  
 elgar (1. gut.)  
 eman  
 emeki-emeki (1. gut.)  
 erdi (1., 2. gut.)  
 erein (1. gut.)  
 ereman 'eraman' (1. gut.)  
 erran (1. gut.)  
 errege (2. gut.)  
 errezebitu  
 esker: *Yeicoari escer* (1. gut.)  
 esku (2. gut.)  
 esperantza 'itxaropena' (1., 2. gut.)  
 eta  
 etxe (2. gut.)  
 euri (1. gut.)  
 ezautu: *enindiela ezauz[en]* (1. gut.)  
 familia  
 fidel 'leiala'  
 finitu 'bukatu' (2. gut.)  
 fite 'laster, agudo' (1. gut.)  
 flakatu 'ahuldu' (1. gut.)  
 frango 'franko'

- gabe (1., 2. gut.)  
 gaizki (1. gut.)  
 galdin 'eskatu' (1. gut.)  
 galdu (1. gut.)  
 gehien 'haur zaharrena, seme edo alaba zaharrena' (2. gut.)  
 gehio 'gehiago'. Aitzinean ageri da: *egun hotan arcilatu diat gebio canpo* (1. gut.)  
 gelditu  
 gerla (2. gut.)  
 gisa 'modua' (1. gut.)  
 gorai[n]tzi  
 gorpitz 'gorputza' (2. gut.). Ikus Mitxelenak dioena, *FHV*, 76-78.  
 gozatu (3. gut.)  
 guti (1. gut.)  
 guzi (1., 2. gut.)  
 haingatik 'hala ere' (1. gut.)  
 hamar (1., 2. gut.)  
 handi (1., 2. gut.)  
 hartu (1., 2. gut.)  
 haur (2. gut.)  
 heben 'hemen' (1., 3. gut.)  
 hobe (1. gut.)  
 hor (3. gut.)  
 hun 'ona'  
 ideia 'ideia, asmoa' (2. gut.)  
 idorte 'lehortea' (1. gut.)  
 igorri (1. gut.)  
 ihaz (1. gut.)  
 ikusi  
 in 'egin' (1., 2. gut.)  
 inketatu 'kezkatu' (2. gut.)  
 irrin 'irri, barre egin' (1. gut.)  
 itandi (1. gut.). Azkue (1905) eta Lhanderen arabera (1926) *italdi*-ren adierakidea da; nekazaritzako neurria adierazten du, hain zuzen ere idi pareak egun batean egin dezakeen lana (*idi + aldi* dateke etimologia, bigarren autorearen arabera).  
 ixkiatu 'izkiriatu, idatzi' (1. gut.)  
 izan (1., 2. gut.)  
 jakin (2., 3. gut.)  
 jalgi 'atera' (2. gut.)  
 Janpierra (izena) (2. gut.)  
 Jeiko (1., 2. gut.)  
 jin 'joan' (1., 2. gut. Ingeleseko *to come*-ren antzeko erabilera egiten du Erdozaintzik, Garaziko letretan ardura agertzen dena, bestalde)  
 kabala 'azienda' (2., 3. gut.)  
 kanpo 'larrea...' (1. gut.)  
 kontserbatu (2. gut.)  
 kotsu 'pixka bat': *balio balinbadu sos cotsia inen diat* (1. gut.)  
 kuraia 'adorea' (2. gut.)



lan (1., 2. gut.)  
 letra 'gutuna' (1., 3. gut.)  
 libertitu (1. gut.)  
 liera 'libera', 'pezeta'... (1. gut.)  
 luma (2. gut.)  
 lusar 'lursagarra, patata' (1. gut.)  
 maite  
 manera 'modua' (1. gut.)  
 Mañex (*Joanes-en hipokoristikoa*) (2. gut.)  
 memento (3. gut.): *mementouan* 'orain'  
 mendre 'ahula' (2. gut.)  
 mila (1., 2. gut.), milaka  
 mirakulo (2. gut.)  
 miseria (2. gut.)  
 mundu (2. gut.)  
 noiz (3. gut.)  
 nun 'non' (2. gut.)  
 okupatu 'arduratu' (1. gut.)  
 ono 'oraino' (1., 2. gut.)  
 onokuan 'orainokoan'  
 orai (1., 2. gut.)  
 ordian 'orduan' (1. gut.)  
 osarri 'osagarria, osasuna' (2., 3. gut.)  
 partez 'ordez, beharrea' (1. gut.), phartez 'partez' (2., 3. gut.)  
 phasatu 'pasatu, igaro'  
 patu 'ordaindu': *soren pasen arinuc* (1. gut.)  
 permixione 'permisioa, baimena' (2. gut.)  
 plazer (2., 3. gut.)  
 polliki (2., 3. gut.)  
 presente (3. gut.)  
 putta bat 'pixka bat' (2. gut.)  
 puxkat (1. gut.), pu[x]ka bat 'pixka bat' (2. gut.)  
 sakola 'sakela' (1. gut.)  
 salbatu (2., 3. gut.)  
 sano 'osasuntsua' (2. gut.)  
 sei (2. gut.)  
 sekulan (2., 3. gut.)  
 seme (2., 3. gut.)  
 seme-alabak (1. gut.)  
 serios 'serioa' (3. gut.)  
 seurik 'behintzat' (1., 2. gut.)  
 sofritu (2. gut.)  
 soin 'begiratu' (2. gut.)  
 sos (1. gut.)  
 (t)xar 'txarra' (1. gut.)  
 trixteki (2. gut.)  
 ttiki (2. gut.)  
 ukan 'izan, eduki' (1., 2. gut.)  
 untsa 'ongi'

urte (1., 2. gut.)  
 uste izan (1., 2. gut.)  
 usu 'maiz' (1. gut.)  
 -z kestione 'dela eta, direla eta'... (3. gut.)  
 zaindu (3. gut.)  
 zamari (2. gut.)  
 zerbait (1., 2. gut.)  
 zernahi (2. gut.)  
 zor: *soren pasen arinuc* (1. gut.)  
 zortzi (2. gut.)

## GUTUNAK

San Pedro, Enero 8 de 1913

Ene Aneya maitia

Erresebitu nian diela aspaldi hire letra; eni phasaturic denbora beti egun edo bihar itecotan. Beras, gu aras untsa gituc, Yeicoari escer. Famillia gusia, seme alabac ere ba, orai estie lan handic emai[ten]. Elgarecin libertizen, phasazen denbora. Ni aras unt[sa] nuc, soren pasen arinuc emeci emeci, beti urte charac ditulaic. Ihas galdunian bost milaliera nere lusaraicin. Aurtene esperancha charadiau; badiat 50 beroita hamar itandi ereinic. Aras eder duc, ono seur[ic]; balio balinbadu sos cotsia inen diat. Ordian menturas yinen nuc sien ycustea.

Heben oraye erdi idorte diau canpuan. Frango gaisciadiat; egun hotan ar-cilatu diat gehio canpo. Ardic puchcat flacatusisciac; benturas euria inendic fite.

Igorzen hayan aber ser pha[sa]tu nien Geachine Luraicin. Nic bisici gausa guti phac[a]tudiad horecin. Icusinielaic eranziacan enindiela ezauz[en]. Menturas ustesican serbait galdinen nacola, bena onocuan horigabe bisi isan nuc eta (—)yeba<sup>3</sup> eta horec besay bisi huna eremanes edo hobia, es ucanice horec besanbat sos. Haingatic ni enuc hortas ocupazen, nic balinbadut ihoslia sacolan basiciat eniadela es eta horec besala bestec inac; horec tien maner- ran edozoin astoc ucaitenahaldic. Haingatic horiec eni iriteco partes nic iri- tendiat horietas; beras, heben estuc beste berriric igorzia balio denic. Nic es ichciatuice usu, ezacala har gaisci horengatic; hic iten ahalduc usio. Milaca gora[i]zi aitari eta egondain ascar; gisaberian aurrider eta hire familliari. Gel- dizen nisalaric Anaya fidel beticos.

*Leon Erdozaincy*<sup>3</sup> Hitz honen lehen zatia ezin da ongi irakurri.

San Pedro, enero 8 de 1913

Ene aneia maitia

Errezebitu nian diela aspaldi hire letra<sup>4</sup>; eni phasaturik denbora beti egun edo bihar itekotan. Beraz, gu arras untsa gituk, Jeikoari esker. Familia guzia, seme-alabak ere ba, orai ezte lan handik emai[ten]. Elgarrekin libertitzen, phasatzen denbora. Ni arras unt[sa] nuk, zorren patzen ari nuk emeki-eme-ki, beti urte xarrak ditulaik. Ihaz galdu nian bost mila liera nere lusarraikin. Aurtene esperantxa xarra diau; badiat 50 berroita hamar itandi<sup>5</sup> ereinik. Arras eder duk, ono seur[ik]<sup>6</sup>; balio balin badu sos kotsia inen diat<sup>7</sup>. Ordian menturaz jinen nuk zien ikustea.

Heben oraie erdi idorte diau kanpuan. Frango gaizki diat; egun hotan arkilatu diat gehio kanpo. Ardik puxkat flakatu zizkiak; benturaz euria inen dik fite.

Igortzen haien aber zer pha[sa]tu nien Geaxine Luraikin (Luroikin?). Nik biziki gauza guti phas[a]tu diat horrekin. Ikusi nielaik errantziakan enindie-la ezautz[en]. Menturaz uste zikan zerbait galdinen nakola, bena onokuan hori gabe bizi izan nuk eta (—)ieba eta horrek bezai bizi huna eremanez edo hobia, ez ukanike horrek bezanbat sos. Haingatik ni enuk hortaz okuputzen, nik balin badut ihoslia<sup>8</sup> sakolan<sup>9</sup> bazikiat enia dela ez eta horrek bezala bes-tek inak; horrek tien maneran<sup>10</sup> edozoin astok ukaiten ahal dik. Haingatik<sup>11</sup> horiek eni irriteko partez nik irriten diat horietaz; beraz, heben eztuk beste berririk igortzia balio denik. Nik ez ixkiatuike usu<sup>12</sup>, etzakala har gaizki horrengatik; hik iten ahal duk usio<sup>13</sup>. Milaka gora[in]tzi aitari eta egon dain azkar; gisa berian aurrider eta hire familiari. Gelditzen nizalarik anaia fidel betikoz.

*Leon Erdozaintzi*

San Pedro, enero 8 de 1913

Querido hermano mío:

Recibí tu carta hace tiempo; a mí se me ha pasado el tiempo con la intención de hacerlo hoy o mañana. Así pues, nosotros estamos muy bien, gracias a Dios. Toda la familia, los hijos también, ahora no dan mucho trabajo. Juegan entre ellos, juntos pasan el tiempo. Yo estoy muy bien, estoy pagan-

<sup>4</sup> Ikusten denez anaia toka egiten dio eta aitari, beherago, zuka.

<sup>5</sup> Lur neurria, 'peonada, fanega, fanegue, mesure agraire espagnole' Azkueren arabera.

<sup>6</sup> 'Oraindik behintzat'.

<sup>7</sup> 'Ongi ateratzen bada diru pixka bat egingo diat'.

<sup>8</sup> 'Eroslea', eta, beraz, sosa ere bai. Irudi du horrela konprenitu behar dela hau, baina ez da guztiz argia.

<sup>9</sup> 'Sakelan'.

<sup>10</sup> 'Horrek dituen moduan'.

<sup>11</sup> 'Hala ere'.

<sup>12</sup> 'Nahiz eta nik maiz ez idatzi'.

<sup>13</sup> 'Hik egiten ahal duk maizago'.

do las deudas poco a poco, teniendo en cuenta que tenemos siempre malos años. El año pasado perdí cinco mil francos (pesos, pesetas...) con mi patata. Este año también tenemos mal panorama; tengo cincuenta peonadas sembradas. Está muy bien eso, por ahora al menos; si vale (si sale bien) haré algo de dinero. Entonces quizás iré a veros.

Aquí ahora también tenemos medio sequía en el campo. Lo tengo bastante mal; estos días he arrendado más campos. Las ovejas se me han adelgazado un poco; quizás llueva pronto.

Me preguntabas a ver qué ha pasado con Geaxine (Graciana) Lura (Luro?). Yo poca cosa he tenido con ella. Cuando la vi me dijo que no me conocía. Igual pensaba que le iba a pedir algo, pero hasta ahora he vivido sin (necesidad de) ella y (ahora, en adelante?) también y llevándome una vida tan buena o mejor que la suya, aunque no tenga tanto dinero como ella. Pero yo no me preocupo de esa, si yo tengo al comprador (el dinero) en el bolsillo sé que es mío, y no como esa, que se lo han hecho otros; tenerlos como los tiene esa los puede tener cualquier burro. Pero en vez de reírse ellos de mí, me río yo de ellos; así pues, aquí no hay más noticias que merezcan la pena. Aunque yo no te escriba a menudo, no te lo tomes a mal; tú puedes hacerlo (escribirme) más a menudo. Muchos recuerdos al padre y que esté (siga) fuerte; igualmente a los hermanos y a tu familia. Tu hermano siempre fiel,

*Leon Erdozaintzi*

San Pedro, febrero 17 de 1916

Ene aita maitia:

Harzen disit louma escoura ene berrien suri emaiteco eta denbora berian sourenen yaciteco esperatchan. Ni arras ountsa nousou osarrian, nere familiarin. Haurrace arras ascarr, osarri ho[una] disie hoce, eta ascarrena soureganat semia dous[ou] onocouan seouric. Gehienaisit mendrena, bena sanoua dousou. Orai egoun gousies samaris yalgizedousou enecin cabaler soitea ta maitia ycousten disit frango trichteci batou siela. Bost haurretaic bihi bat etch[eic] gabe, souretaco serbait basiosoun moundou hountan, bena harra-sou couraya eta osarria contserba ahal besay ountsa; sohaun gorpizari es sofr[ias] aita maitia.

Egoun hotan erresebitou zit anaya Mayechen eta Yanpierrain letrac, noun ygorzen baizouten arras ountsa siela. Yanpierrac ygorzen siasoun etchen isanzela sei egounendaco eta Beyan hamost egounendaco. Mayechec estiela oucan permichioneic; agian fite icousicoisiou hoiec salbatouic, gerla finizeco mentoura[s] miracoulo bat inen disi goure Yeic[ouac], aldi hountan bedein.

Mayechec eta Yanpierrac frango plaser iten diasie, berriac frango ousou igorzen diasiasie eta denbora berian igorzen zie familia gousien berriac; beste bieci arras becan igorzezie.

Ene aita maitia anaya horiec igorzen diasie sou pou[ch]ca bat incetatia sinela, ezindielacos ene berric. Nitas ezitela inceta; nic erregein bisia phasazen disit. Nic estiacisout miseria ser den Ameicetan onocouan seouric. Goure Yeicouac sourte hori eman diasou onocou[an] seouric.

Soure anaya Mayech beti enecilan dousou eta arras ountsa dousou, secoulan besay ascar dousou. Beras, aita maitia, secoulan gerla hori finizen bada, horrat yiteco ideyaisit eta mentouras hor bisizea; sernahi isanic, yinen nousou sien icoustea.

Orai frango pollici lanian ari nousou; baisit cabala puya bat arras huna. Baisit mila sorzi ehoun ardi eta ehoun eta berroita hamar behi yici handi, eta aurthene ouste disite ourte houn bat oucain douan.

Ene aita maitia, ezit beste berriric ygorzia balio denic. Milaca goraziac eta emanenzou haur gusier ene phartes. Geldizen nousu besarcazen sitoualaic bihozaren erditic, soure seme fidel beticos,

*Leon Erdozainçy*

San Pedro, febrero 17 de 1916

Ene aita maitia:

Hartzen dizit<sup>14</sup> luma eskura ene berrien zuri emaiteko eta denbora berrian zurenen jakiteko espera[n]txan. Ni arras untsa nuzu osarrian<sup>15</sup>, nere familiakin. Haurrake arras azkar, osarri hu[na] dizie hoke<sup>16</sup>, eta azkarrena zureganat semia duz[u] onokuan seurik<sup>17</sup>. Gehienait mendrena<sup>18</sup>, bena sanua duzu. Orai egun guziez zamariz jalgitzeduzu enekin kabaler soitea ta maitia ikusten dizit frango trixteki batu ziela. Bost haurretaik bihi bat etx[eik] gabe, zuretako zerbait baziozun<sup>19</sup> mundu huntan, bena harrazu kuraia eta osarria kontserba ahal bezai untsa; zohaun<sup>20</sup> gorpitzari ez sofr[iaz] aita maitia.

Egun hotan errezebitu tzit<sup>21</sup> anaia Mañexen eta Janpierrain letrak, nun igortzen baitzuten arras untsa ziela. Janpierrak igortzen ziazun<sup>22</sup> etxen izantzela sei egunendako eta Bettan hamost egunendako. Mañexek eztiela ukan permixioneik; agian fite ikusikoiziu hoiek salbatuik, gerla finitzeko mentura[z] mirakulo bat inen dizi gure Jeik[uak], aldi huntan bedein<sup>23</sup>.

Mañexek eta Janpierrak frango plazer iten diazie<sup>24</sup>, berriak frango usu igortzen diazkiazie<sup>25</sup> eta denbora berian igortzen tzie<sup>26</sup> familia guzien berriak; beste biek arras bekan igortzetzie.

<sup>14</sup> 'Hartzen dut', zuka.

<sup>15</sup> 'Ni oso ongi nago osasunez', zuka.

<sup>16</sup> 'Osasun ona dute hauek ere'.

<sup>17</sup> 'Orain arte bederen'.

<sup>18</sup> 'Zaharrena dut ahulena', zuka.

<sup>19</sup> 'Bazegoen', zuka.

<sup>20</sup> 'Zuhauren'.

<sup>21</sup> 'Hartu ditut', zuka.

<sup>22</sup> 'Igortzen zidan', zuka.

<sup>23</sup> 'Aldi honetan bederen'.

<sup>24</sup> 'Egiten didate', zuka.

<sup>25</sup> 'Bidaltzen dizkidate', zuka.

<sup>26</sup> 'Bidaltzen dituzte', zuka.

Ene aita maitia anaia horiek igortzen diazie zu pu[x]ka bat inketatia zinel, etzindielakoz<sup>27</sup> ene berrik. Nitaz etzitela inketa<sup>28</sup>; nik erregein bizia phasatzen dizit. Nik eztiakizut<sup>29</sup> miseria zer den Ameiketean onokuan seurik. Gurre Jeikuak surte hori eman diazu onoku[an] seurik.

Zure anaia Mañex<sup>30</sup> beti enekilan duzu eta arras untsa duzu, sekulan bezai azkar duzu. Beraz, aita maitia, sekulan gerla hori<sup>31</sup> finitzen bada, horrat jitekoko ideiaizit<sup>32</sup> eta menturaz hor bizitzea; zernahi izanik, jinen nuzu zien ikustea<sup>33</sup>.

Orai frango polliki lanian ari nuzu; baizit kabala putta bat arras huna<sup>34</sup>. Baizit mila zortzi ehun ardi eta ehun eta berroita hamar behi ttiki handi, eta aurrhene uste dizite<sup>35</sup> urte hun bat ukain duan<sup>36</sup>.

Ene aita maitia, etzit beste berririk igortzia balio denik<sup>37</sup>. Milaka gorai[n]tziak eta emanentzu haur guzier ene phartez. Gelditzen nuzu besarkatzen zitualaik bihotzaren erditik, zure seme fidel betikoz,

*Leon Erdozaintzi*

San Pedro, febrero 17 de 1916

Querido padre mío:

Cojo la pluma para darle noticias más y, al mismo tiempo, con la esperanza de saber de las tuyas. Yo estoy muy bien de salud, con mi familia. Los niños también están fuertes, estos también tienen buena salud y el más fuerte ha salido a usted, hasta el momento al menos. El mayor es el más débil, pero está sano. Ahora todos los días sale conmigo a caballo, a ver el ganado y, ¡pobrecito!, veo que lo recogió (el ganado) con poca habilidad. De los cinco hijos ninguno sin casa, para usted había algo en este mundo, pero tome valor y conserve la salud lo mejor que pueda; no le haga sufrir al cuerpo, padre querido.

Estos días he recibido las cartas de Mañex y Janpierra, donde me decían que estaban muy bien. Janpierra decía que había estado en casa para seis días y Bettan para quince. Mañex dice que no ha tenido permiso; ¡ojalá los veamos pronto sanos y salvos!; para que acabe la guerra igual nuestro Señor hará un milagro, al menos esta vez.

Mañex y Janpierra me complacen (dan el gusto) bastante, me mandan noticias bastante a menudo y, al mismo tiempo, me mandan noticias de todas las familias; los otros dos me escriben muy pocas veces.

<sup>27</sup> 'Ez zenuelako', zuka.

<sup>28</sup> 'Ez zaitzela nitaz kezka'.

<sup>29</sup> 'Ez dakit'.

<sup>30</sup> «Ene oseba» errateko partez «zure anaia» erraten dio aitari.

<sup>31</sup> Lehen Mundu Gerla, bistan denez.

<sup>32</sup> 'Horra joateko asmoa dut'. Ohikoa da Nafarroa Behereko letretan «jin» 'joan' adierazteko erabiltzea, ingelesez egiten den moduan.

<sup>33</sup> 'Joanen naiz zuek ikustera'.

<sup>34</sup> 'Badut azienda pixka bat oso ona'.

<sup>35</sup> 'Uste dut ere'.

<sup>36</sup> 'Urte on bat izanen dudala'.

<sup>37</sup> 'Ez dut beste albisterik bidaltzea merezi duenik'.

Padre querido, los hermanos me dicen que usted estaba un poco preocupado, porque no tenía noticias mías. No se preocupe por mí; yo vivo como un rey. No sé qué es la miseria en las Américas, por lo menos hasta ahora. Nuestro Señor me ha dado esa suerte hasta el momento al menos.

Su hermano Mañex está siempre / todavía conmigo y está muy bien, tan fuerte como siempre. Por lo tanto, querido padre, si alguna vez termina esa guerra, tengo la intención de ir ahí y quizás de vivir ahí; como quiera que sea iré a verles a ustedes.

Ahora estoy trabajando bastante bien; tengo un poquito de ganado muy bueno. Tengo mil ochocientas ovejas y ciento cincuenta vacas pequeñas y grandes, y creo que también este año será bueno.

Querido padre, no tengo más noticias que merezca la pena enviarle. Recuerdos a todos de mi parte. Le abrazo de todo corazón, su hijo siempre fiel,

*Leon Erdozaintzi*

San Pedro, 13 de junio, 1918

Ene aita maitia:

Erresebitou nisin anaya Peyanen letra pl[a]s[e]rrekin, ikousi baitout osarri houna sindoutela. Ni[k]ere gausa bera disit gosazen nere familliarin eta gausa bera dausiet desirazen presenteco, hau erres[ebi]zian eta beti.

Aita maitia, hebe[ngo] berries kestione esta berriogoric. Arras denbora houna dula mementouan; kabala[c] arras untsa zit, onokoua[n] frango polli[qui] niasu nere aferetan. Echaquin noisartio. Beras, hor ikous[te]n disit sekoulan beno serios[ogo] diela gausak eta ono anaya hori[ec] bisiakin salbazen dielaic denac phasa[tu]co zu, eta zouk saintasu suhauren bouria.

Aita maitia ezit meme[n]touan beste berriric igorzi[a] balio denic. Milak[a] goraiziak ene eta familliarin partes, geldizenisalaik sure seme fidel be[ticos],

*Leon Erdozaincy*

San Pedro, 13 de junio, 1918

Ene aita maitia:

Errezebitu nizin anaia Pettanen letra pl[a]z[e]rrekin, ikusi baitut osarri huna zindutela. Ni[k]ere gauza bera dizit gozaten nere familiakin eta gauza bera dauziet desiraten presenteco, hau errez[ebi]tzian eta beti.

Aita maitia, hebe[ngo] berriez kestione ezta berriogoric<sup>38</sup>. Arras denbora huna dula<sup>39</sup> mementuan; kabala[k] arras untsa tzit, onokua[n] frango po-

<sup>38</sup> 'Hemengo albisteak direla-eta ez dago berriogoric'.

<sup>39</sup> 'Oso eguraldi ona dugula'.

lli[ki] niazu nere aferetan<sup>40</sup>. Etxakin noiz artio<sup>41</sup>. Beraz, hor ikus[te]n dizit sekulan beno serios[ogo] diela gauzak eta ono anaia hori[ek] biziakin salbatzen dielaik denak phasa[tu]ko tzu, eta zuk zaintazu zuharen buria.

Aita maitia etzit meme[n]tuan beste berririk igortzi[a] balio denik. Milak[a] gorai[n]tziak ene eta familian partez, gelditzenizalaik zure seme fidel be[tikoz],

*Leon Erdozaintzi*

San Pedro, 13 de junio, 1918

Querido padre mío:

Recibí la carta de mi hermano Pettan con mucho gusto, pues he visto que tienen ustedes buena salud. Yo también gozo de buena salud con mi familia y lo mismo les deseo a ustedes ahora, cuando reciban la carta y siempre.

Querido padre, en cuanto a las noticias de aquí no hay nada nuevo. Que tenemos un tiempo muy bueno por el momento; el ganado lo tengo muy bien, hasta ahora voy bastante bien en mis asuntos. Pero no sabemos hasta cuándo. Veo que las cosas ahí al parecer están más serias que nunca y si por lo menos esos hermanos míos salen con vida se pasarán (olvidarán) todas las penas, y usted cuídese.

Querido padre, no tengo por el momento ninguna otra noticia que merezca la pena. Muchos recuerdos de mi parte y de parte de la familia. Su hijo siempre fiel,

*Leon Erdozaintzi*

## BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, J. (1996): *Euskararen tratamenduak: erabilera*, Iker-9, Euskaltzaindia, Bilbo.
- AZKUE, R. M. (1969 [1905]): *Diccionario vasco-español-francés*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- DUHAU, H. (2003): *Hasian Hasi. Beskoitzeko Euskara (Beskoitzeko Heskudara)*, Euskal Kultur Erakundea & Beskoitze, Donibane Lohizune.
- ETXEPARE, B. (1980 [1545]): *Linguae vasconum primitiae*, Patxi Altunak paratu edizio kritikoa, Mensajero, Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (1999): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V (Mendeko Perpausak-1)*, Bilbo.
- GOENAGA, P. (1997): "Subjunktiboaz eta aginteraz zenbait ohar: -en eta -ela atzizkien erabilera", *Federiko Krutwig-i Omenaldia*, Iker-10, 109-132.

<sup>40</sup> 'Noa nire negoziotan, nire gauzetan', zuka.

<sup>41</sup> 'Ez jakin noiz arte', 'ez jakinki noiz arte'.



- KAMINO, P. & SALABERRI, P. (2001): "Aditz trinkoen orainaldiko formak Luzaideko euskaran", *FLV* 87, 193-202.
- LHANDE, P. (1926): *Dictionnaire Basque-Français*, Paris.
- MITXELENA, K. (1990 [1961]): *Fonética Histórica Vasca*, «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegiaren Gehigarriak IV, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 4. argitaraldia.
- SALABERRI IBARROLAKOA (1856): *Vocabulaire de mots basques bas-navarrais traduits en langue française*, Baiona.
- SATRUSTEGI, J. M. (1971): "Correspondencia familiar vasca del siglo XIX", *FLV* 9, 291-306.

#### LABURPENA

Lan honetan Nafarroa Behereko euskaran idatzitako hiru gutun ematen ditugu argitara, lehenik egileak –Leon Erdozaintzi– izkiriatu zituen modu berean, gero egungo grafiarekin eta azkenik gaztelaniara itzulita. Eskutitz hauek 1913, 1916 eta 1918koak dira, hots, aurrenekoa Lehen Mundu Gerlaren aitzinekoa eta beste biak gerla garaikoak. Argentinan idatzi zituen egileak, anaiari igorri ziona toka eta aitari zuzendutakoak begiramenezko zuka alokutiboan.

#### RESUMEN

En este trabajo publicamos tres cartas en euskera de la Baja Navarra que fueron escritas en Argentina, primero con la grafía que el autor –Leon Erdozaintzi– emplea, después con grafía actual y finalmente traducidas al castellano. Datan de 1913, 1916 y 1918, es decir, la primera fue escrita un poco antes de la Primera Guerra Mundial y las dos últimas durante el conflicto bélico. En cuanto al tratamiento utilizado, cabe destacar que la primera, la que el autor dirige a su hermano, está escrita en *toka*, registro de confianza, y las otras dos, dirigidas al padre, en *zuka*, tratamiento de respeto.

#### RÉSUMÉ

Dans ce travail nous publions trois lettres en euskera de la Basse Navarre qui ont été écrites en Argentine, tout d'abord avec la graphie que l'auteur –Leon Erdozaintzi– emploie, ensuite avec la graphie actuelle et finalement traduites à l'espagnol. Elles datent de 1913, 1916 et 1918, c'est à dire la première a été écrite un peu avant la Première Guerre Mondiale et les deux autres pendant le conflit armé. Quant aux formules de politesse utilisées, il faut souligner que la première, celle de l'auteur adresse à son frère, est écrite en *toka*, qui est une formule de familiarité, et les deux autres, adressées à son père, en *zuka*, qui est une formule de respect.

#### ABSTRACT

In this article we publish three letters written in Argentina in Low Navarrese dialect, first with the orthography that the author –Leon Erdozaintzi– uses, later with modern orthography and finally translated into Spanish. They date back to 1913, 1916 and 1918, that is to say, the first one was written some time before the First World War and the last ones during the conflict. It is necessary to emphasize that the first letter, which the author sends to his brother, is written in *toka*, a confidence term of address and the other two, directed to the father, in *zuka*, a respect and deference term of address.